

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure enpresa produktu ekologikoak kontsumitu nahi dituzten edota bidezko merkataritzaren alde dauden pertsonetara bideratutako denda izango da, izan ere, gure hirian (Vitoria-Gasteizen) produktu hauek saltzen dituzten denda kopurua oso murriztua da.

Gure enpresak, produktu ekologiko nahiz bidezko merkataritzako produktuak saltzeaz aparte, ekologia bultzatzeko tailerrak sortuko ditu. Adibide bezala, paper erabiliak birziklatuko ditugu, poltsa biodegradableak edo paperezko ontziak sortzeko.

Horrez gain, sukaldaritza bultzatuko dugu, gaur egungo pertsonen ohiturak aldarazteko, adibidez, janari lasterraren kontsumoa ekiditzeko. Salduko produktu batzuk, aldeztatik sukaldatutako produktuak izango dira eta hauek prozesu naturalen bitartez sukaldatuko ditugu. Gure produktu guztiek kalitatezko ziurtagiri bat izango dute, gure bezeroei nolabaiteko segurtasun bat eskaini diezaiekegun.

Diru-maila guztietako bezeroak erakartzeko, gure produktuak arrazoizko prezio batean salduko ditugu, modan dauden denda ekologiko horietaz desberdintzeko.

Gure dendaren kanpoko diseinuak landare igokariak izango ditu atearen eta leihoen inguruan. Kanpoaldean, irudikatzen gaituen figura bat jarriko dugu, bezeroak erakartzeko eta haien arreta deitzeko.

